



Jesus  
Atxa  
Agirre

1920-2007

BIDeGILEAK

Egilea:

**Imanol Murua Uria**



# JESUS ATXA AGIRRE

(1920-2007)

## Haurtzaro euskalduna

**J**esus Atxa Agirre 1920ko maiatzaren 28an sortu zen Aretxabaletan. Aita Arrasateko Etxaluze baserrikoa eta ama Bergarako Ibratz baserrikoa, Aretxabaletan kalean hazi ziren Jesus eta zortzi anai-arrebak, bederatzien artean bosgarrena bera. Aitona karlista zuen eta aita zinegotzi monarkikoa, baina etxean ez zuen politika girorik bizi izan. Euskara zen etxeko hizkuntza. *El Dia* egunkari abertzalea, *Zeruko Argia* eta *Arantzazu* erlijio aldizkariak, *Yakintza* kultur aldizkaria eta *Vida Vasca* argitalpena jasotzen zituzten etxean.

Hamalau urterekin eskola amaituta, Errepublikara garaian, Durangoko San Jose ikastetxera joan zen, jesuitengana, aita-  
ren erabakiz. Oro har giro euskaltzalerik ez zuen bizi izan han, baina kontrako-  
rik ere ez. Euskararen aldeko jarrera zue-  
nik ezagutu zuen irakasle jesuiten artean,  
tarte nagusia bera, Areitio, eta haien es-  
kutik euskarazko zenbait aldizkari jaso  
izan zituen. Jatordueroko irakurraldiak egi-  
ten zituzten eta, egunero bost minutu,  
euskarazko testu bat irakurtzen zuten.  
Otorduetako irakurraldi publiko horie-  
tan leitu zuten, esate baterako, Kirikiño-





Jaunartze egunean marinel jantzian —eskuinetik lehena—, gurasoekin eta anai-arrebekin, Aretxabaletan

ren *Abarrak*. Euskararekiko zaletasuna pizten orduan hasi zitzaion Jesus gazteari: *Eneida* latinetik euskarara itzultzen hasi zen, bere kasa, eta eskolako jaialdiren batean berak idatzitako euskarazko olerkiak errezitatu ere egin zituen behin.

Hamasei urte zituela piztu zen gerra 1936an. Francoren aldeko jarrera bizi izan

zuen etxean, baina gehiago erlijioagatik, politikagatik baino. Aitaren erabakiz berriro, jesuitek Tournai-n (Belgika) zuten nobiziatura joateko sortu zitzaion aukera baliatu zuen, tropa frankistak Aretxabaletan sartu eta hilabetera: Dantxarineako muga zeharkatu zuen, beste hainbat jesuita ikaslerekin batera, Belgikako ikastetxerako bidean. 1936ko azaroa zen.



# Hamar urte atzerrian

Le Havreko portutik Venezuelarako bidean,  
1937an, *Columbie* itsasontzian

**B**este mundu batean bezala egin zuen Belgikako egonaldia, nobiziatuan isolatuta, Euskal Herrian utzitako familiarekin ia harremanik gabe, inguruan gaztelania besterik entzuten ez zuela eta, zortzi hilabete egin zituen arren, hango hizkuntzarik ere ikasi gabe.

Jesuita formazioa Venezuelen jarraitzeko aukera sortu zitzaion gero: Le Havre-ko portuan *Columbie* itsasontzia hartuta, Atlantikoa zeharkatu eta Caracasetik bost kilometrora zegoen ikastetxera joan zen, nobiziatua burutzeko falta zitzaizkion urtebetea eta lau hilabeteak egitera. Ordurako euskal errefuxiatuen komunitatea osatzen ari zen Venezuelen, Caracasen

batik bat, baina haien berririk ez zuen izan, jesuiten nobiziatuko bizimoduan sarturik.

Nobiziatua bukatuta, Kolonbiara jo zuen, ikasketak bukatzera. Sei urteko egonaldi luzea egin zuen Kolonbian: bi urte Santa Rosa de Viterbo herriko ikastetxean, eta hiru urte Bogotako unibertsitatean, Filosofia eta Letrak karrera ikasten. Euskarekin edo euskal giroarekin inolako harremanik gabe egin zituen urte haiek ere. Ikasketak bukatuta, «urtebeteko barne borroka latzaren ondoren», jesuita izateko asmoari uko egin zion, meza ematera iristeko artean sei urte falta zitzaizkionean. Jesuita gotzain baten bidez lortu



Venezuelatik Santurtziko portura eraman zuen itsasontzian, 1946an

zuen lana, Kolonbiako Santander probintziako San Gil herrian, elizaren babeseko aldizkari batean. Baina urtebete inguru besterik ez zuen egin han.

Artean Kolonbian zegoela, Caracasko euskal giroaren berri izan zuen eta, zazpi urte inguru euskal girotik erabat aparte bizi ondoren, hurbiltzeko gogo piztu zitzaion. Esku hutsik agertu zen Caracase-ra, sakelan 80 bolibar besterik ez zituela, lau egunetarako bizimodua baino ez alegia, eta inoren kontakturik gabe. Horrelako abenturetarako adin egokia ere bazuen orduan, hogeita hiru urterekin iritsi baitzen Venezuelara, inorekin eta ezerekin loturarik gabe.

## CARACASEN, ARGIA

Ostatuetan eta abarretan euskal izenak bilatuz ekin zion bideari, eta azkenean Caracaseko Euskal Etxera heldu zen. Mundu berri bat zabaldu zitzaion. Besteak beste, Ion Oñatibia ezagutu zuen. Eta harekin bizitzen jarri zen handik gutxira, Ricardo Leizaolaren ostatuan (Jesus Leizaolaren anaia), Hotel Zumaian.

«Oñatibiarena», Jesus Atxaren beraren hitzetan, «euskara, euskara eta euskara zen». Euskal Etxean berak antolatzen omen zituen, garai hartan, euskara, dantza, txistu eta abarri buruzko ikastaroak, baita euskaldunek euskaldunekin euskaraz hitz egin ahal izateko otorduak ere. *Argia* euskara hutsezko aldizkaria sortu zuen garai hartan Oñatibiak, Jesus Atxarekin batera, Ricardo Leizaolaren eta Segundo Eizmendiren (Basarriren anaia) laguntzarekin, haiek inprimategi batean sartuta zeudenez. Oñatibiak berak idazten zituen testu gehienak, baina Atxak ere bai batzuk.

1946ko Aberri Egunerako argitaratu zuten lehenengo zenbakia, zortzi orrial-



Argia aldizkariaren 13. eta 14. zenbakien azalak

dekoa —hamasei orrialde izatera heldu zen gerora—. Mantxetan bertan zetorren aldizkari jaio berriaren asmo nagusia zein zen: *Argia* [letra handian] *Euskaldunak euskeraz* [txikiagoan]. Lehenengo zenbakiko azalean, «Asmo ta Egintzak» idatzi si-nadurarik gabean, aldizkariaren helburua hizkuntzaren alorrera ez zela mugatzen argi utzi zuten sortzaileek:



Lenbiziko aldiz argitara urtetzearekin geure betiko yokabidea agertu nai dogu ARGIA'koak; geure asmo ta egintzak eukiko dabean bidea zein ixango dan azaldu biarra dogu. ARGIA'ko eukiko dabean elburu nagusiak onexek dira: aberri askatasuna ta Euzko-Yakintzaren askatasuna. [...] Ez dogu beraz, olako edo alako margorik geure yokabidean, euzko sendi guztiak Ikurrin baten azpian yarrita

ikusi-gura baño. Euzkadi'ko egi aundia-  
renpean maite doguz aberkide guztiok.  
Arana-Goiri'tar Sabiñen egia ixango da  
ARGIA'k zintasunez aldeztuko doguna.  
Au da: EUZKADI DA EUZKOTARREN  
ABERRIA.

Arlo guztietako gai ei buruzkoak ziren *Ar-  
giako* artikuluak: Euskal Herriko nahiz  
munduko gai politikoak, diasporari buruz-  
ko berriak, elkarrizketak, literatura, ber-

tsoak... baita «ostikoketa» txapelketako  
emaitzak ere, Euskal Etxeak taldea bai-  
tzuen Venezuelako futbol ligan, Deportivo  
Vasco izenarekin —partiduren bat joka-  
tzera ere heldu zen Atxa, taldearekin—.  
Idatzi gehienak goitzenekin izenpetzen  
zituzten, literatur lan zenbait salbu: Teles-  
foro Monzon («Monzon-Olason'neko Te-  
lespor»), Orixe eta Jokin Zaitegi idazleen  
hainbat lan argitaratu zituzten, esate batera.



Elorrioko futbol taldean. Zutik, lehenengoa ezker aldean

Atxak *Etxeluze* ezizena behintzat erabili zuen, Etxaluze izaki aitaren base-  
ria. «Euskaldunak Ameriketara» sail his-  
torikoa idatzi zuen Etxeluzek, atalka,  
aldizkariaren lehenengo lau zenbakie-  
tan, Segundo Ispizuaren *Los Vascos en  
America* liburuan oinarrituta, baita jesui-  
tei buruzko bi orrialde osoko erreportaje  
luzea ere, «Loyolatarren Psikolojia», lau-  
garren zenbakian.

Klase partikularrak emanaz, Enpresa-  
rien Sindikatuan idazkari lanak eginez  
eta Oñatibiarekin hango eta hemengo hi-  
leta elizkizunetara abestera joanez atera  
zuen bizimodua garai hartan Atxak. Ez  
zen Ameriketara aberasteko asmoa zute-  
netakoa.

Caracasetik New Yorkera joateko zorian  
izan zen. Oñatibia eta biak etsita zeu-  
den Caracaseko euskal komunitatearekin,  
diru giroa nagusi zela sumatzen zutelako.  
Oñatibiak, gainera, musika ikasketetan  
sakondu nahi zuen, eta horretarako bidea  
Caracasetik urrun ikusten zuen. Horre-  
tan, New Yorkera joateko asmoa azaldu  
zion Oñatibiak Atxari, berarekin joateko-  
tan egon zen, eta Jesus Galindez Eusko

Jaurlaritzaren New Yorkeko ordezkaria-  
rekin harremanetan ere jarri ziren horre-  
tarako. Baina azkenean Euskal Herrira  
itzultzeko gogoak indar handiagoa izan  
zuen, eta halaxe egin zuen.

Egun berean abiatu ziren biak Caracase-  
tik, bata New Yorkerantz eta bestea etxe-  
rantz. 1946ko urriaren 1ean heldu zen  
Santurtziko portura. Elorrio hartu zuen  
bizileku, etxekoekin, aita lanera hara jo-  
na zenez.



Pianoa jotzen, gaztetan Ameriketara eraman zuen  
itsasontzian bezala



# Euskal Herrira, frankismo betean

Juli Igartzarekin ezkondu zeneko argazkia  
1953ko ekainaren 26an

Oñatibia New Yorkera joanagatik —eta Atxa Elorriora—, *Argia* aldizkariak aurrera egin zuen. Izan ere, New Yorken argitaratu ziren zenbakerik gehienak. 1946ko lehenengo laurak Caracasen, eta hortik aurrerako guztiak New Yorken: 1946an beste bi, 1947an sei eta 1948an hiru. Behin Euskal Herrira etorrita, euskal idazle zenbaitekin harremanetan jartzeko eskatu zion Oñatibiak Atxari, *Argiarako* idaz zezaten. Halaxe jo zuen honek, sorterrira itzuli berritan, Martin Ugalderegana edota Iñaki Eizmendi *Basarri*regana. Batak zein besteak idatzi zuten gero New Yorkeko *Argiarako*. Atxak hainbat aldiz bidali izan zizkion Oñatibiari hemen bildutako

idazlanak, tartean berak idatzitakorik ere bai. New Yorketik ere beste hainbat aldiz jaso izan zuen paketea, *Argia* aldizkariaren aleekin eta. Durangoko telefonoetan zeukan horretarako bitartekaria.

New Yorken argitaratutako bigarren zenbakian —*Argiaren* seigarrena, orotara—, Etxeluze sinadura agertu zen berriro euskarazko aldizkariaren orrialdeetan, «Gorra Biotzak» izenburuko artikuluan.

Agur lagun zar! Agindu nizkin berriak, emengo euskal bizitzaren goraberak, euskotarren ekiñaldi guztiak jakiteko berantsia izango aiz, onezkero. Berandu xarba-da ere, agindu ura betetzera natorrik. [...] Ainbeste urteren buruan, iñoiz baño ederrago iduritu zaidak gure Euz-

kadi; iñoiz baño atsegiñago gure aberria; eta iñoiz baño maitagarriago gure eusko anai-arrebak. [...] ARGIA zabaltzen deken emen. Oso atsegin izan zayek emen irakurri duten guztiai. Gure izparringi orreri gogoz laguntzeko gerturik zeudek guztiak, eta aurrerantzian, idazlan ugari bidaliko dizkizutela ere agindu zidatek idazle askok. Oraintxe bai izango dala ARGIA euskaldun guztien izparringia. [...] Noiznaiz, bazter guztietan, nunai agertzen deken gure ikurriña. Euskal biotzaren txinpartak dituk. Euzkadi'k ez dik il nai, baizik iñoiz baño sendoago bizi! Eusko anai-arreba danna tinko irauten ditek eta Euzkadi laster askatuko dala, ziur gaudek. Gora biotzak!

Geroztik ez da, *Argia* aldizkariaren zenbakietan, Etxeluze sinaduradun idatzirik. Baina baten batek jarraitu zuen, 1948an aldizkariak azken zenbakia plazaratu zuen artean, Euskal Herritik hango idazleen idatziak New Yorkera bidaltzen, zenbaki guztietan argitaratu baitzen «Euzkadi'tik» izeneko atala, euskal herrietako berriekin.

*Argia* aldizkaria laguntzetik kanpo ere topatu zuen Atxak euskaltzaletasunari bide emateko bestelako zereginik, garaiak uzten zituen muga estuen barruan. 1950eko hamarkadaren hasiera zen, frankismo bete-



Urbian lagun talde batekin, 1950ean. Atxa, erdian, kaikua jantzita

-betea. Luistarren Elorrioko etxean berrogeita hamar mutiko bildu, Santa Ageda eguneko abestiak erakutsi eta baserriz baserri kantari ibiltzea, aurrerapausoa zen garai ilun haietan. Carlos Murgiak Discos



Ezkerretik bigarrena, mendira lagunekin egindako irteeratako batean



Elorriko abesbatzako kideekin, San Agustineko Munitxa erretoarekin. Eskuinetik bigarrena da bera

Columbia etxearekin euskaraz grabatutako abestietako batzuk meza nagusiaren ondoren udaletxeko balkoiko gramolan jartzea ere lorpena zen. Elorriko abesbatzako zuzendaria ere izan zen hainbat urtez Atxa eta, berak esatera, batuta berak izan zuen bitartean abesbatza hark ez zuen sekula gaztelaniazko kanturik abestu.



Elorrion, Juli emaztearekin

1953an ezkondu zen Juli Igartza elorriorrarekin. Eta ezkontzaren kontuarekin ere izan zuen borrokarik. Elorriko erretoareak euskarazko mezan ezkontzeari uko egin zionean, gogor egin zion Jesusek, beste eliza batzuetara joko zuela eta euskaraz ezkondu arte ez zuela etsiko esanez. Elorrion ezkondu ziren. Euskaraz.



Juli emaztearekin



Familia argazkia. Maria Asun, Juan Inazio, Kontxi eta Espe seme-alabekin, Elorrion

## ERRESISTENTZIAN

EAJn afiliatuta itzuli zen Caracasetik eta, 50eko hamarkadan batik bat, arlo politikoan ere murgildu zen, frankismoaren aurkako lanean, alderdi jeltzalearen berantolaketan gehienbat. Juan Ajuriagerra eta Lucio Artetxe burukideekin Durangoko biltegian egin zuten bilera izan zen abiapuntua. Inguruko herrietako jeltzaleak ere bildu ziren han, Elorriokoez gain, eta Uri Buru Batzarrak —EAJren herrietako batzordeak— antolatzen hasteko enkargua eman zieten bi buruzagiek.

Hiruzpalau bildu ziren Elorrion eta alderdikide izan zitezkeen herriko abertzaleen zerrenda egitea izan zen aurreneko lana: 130 laguneko zerrenda egin, abisua ahoz aho pasa, eta bozketa: Atxa izan zen Elorrioko Uri Buru Batzarrerako hautatuetako bat. Elorrion aitzindarietakoak izan zirenez, hainbat herritan laguntzen ere aritu ziren gero. Atxa bera Ermura, Berrizera, Zaldibarrera, Zornotzara eta Otxandiora behintzat joan zen, hango Uri Buru Batzarrak antolatzen laguntzera.

Behin, Ajuriagerrak aginduta, gazte talde bat antolatu eta Ipar Euskal Herrira era-

man zituzten, Pablo Beldarrain Intxortan komandante izandakoaren bitartez, Manuel Irujo, Telesforo Monzon eta beste hainbat burukideren ikastaroak hartzera, astebetetz. Erresistentzia ekintza bitxi batean ere parte hartu zuten garai hartan Atxak eta. Etortzekoa zen politikari ingeles garrantzitsu bati Euskal Herrian erresistentzia antolatua bazela erakutsi behar zitzaioela-eta, igande batez ordu jakin batean errepide ondoan bostehun metrotik bostehun metrora, Kanpazartik Bilboraino, hark ikusteko moduan, launaka jartzeko agindua jaso zuten. Agindutako puntuan egon ziren, baina konaturatu behintzat ez ziren egin, politikari ingelesik pasa zenik.

EAJko kidea zen Atxa, baina ez zegoen alderdi jeltzaleko kidea izan beharrik, bere laguntza jasotzeko. «Francoren kontrako dena, alde zen», zioen. Adibidez, Kepa Enbeitak eta Jon Nikolasek ekarritak, ETAREN hasierako agiriak ere banatzen ibili zen Atxa. Baita Federiko Krutwigen *Vasconia* liburuak ere. Koldo Anabitarte *eladioarekin* ere ibili zen harremanetan Atxa, behar zenean laguntzen.

## FUNCOR KOOPERATIBAN

Filosofia eta Letren karrera egina, irakasle jarduteko prestatuta etorri zen Venezuelatik Euskal Herrira. Baina, itzuli berritan behintzat, bestelako lanbidetan ibili zen. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren bulegoan aurrena, eta Lince burdingintza lantegiko bulegoetan gero. Hiru bat urtera edo, «lantegiko aberats berrien jauntxokeria jasan ezinik» bere hitzetan, burdin kontuak utzi eta Funcor kooperatiban hasi zen, kontsumoko dendan bate-tik, eta kooperatibaren ikastetxean, bestetik. Langileen seme-alaben ikastetxea zen hura, 250-300 ikasle biltzen zituena. Baina ez zen ikastetxe arrunta. Geografia eta Historia irakaslea zen Atxa eta eskolak, ia beste inon ez bezala, euskaraz ematen zituen. Ez zen Atxaren burutazio hutsa izan. Giroa ere halakoa zen Funcorren. Ikastetxeko zuzendaria Jose Antonio Retolaza apaiza zen, gerora *Kili-Kili* aldizkariaren sortzailea izango zena. Arazoak ere ekarri zizkion Retolazari euskararen aldeko jarrerak eta jokabideek. Elorrioko alkateak salatu egin zuen gobernadorearen aurrean, gobernadoreak



Funcor kooperatibako ikastetxearen barne araudia

Pablo Gurrupide gotzainarengana jo zuen, eta gotzainak Funcorretik alde egiteko agindu zion Retolazari. 1960ko hamarkadaren hasiera zen.

Atxak ere garai bertsuan utzi zuen Funcor. Dendako diru kontuetan irregularitasunak zirela konturatu zen Atxa, milioi erdi pezetako zuloa, eta haien berri eman zuen Arrasaten, Lankide Aurrezki Kutxan. Atxak esatera, Arrasatera jo izanak haserretu egin zituen Funcorreko arduradunak —«ni izan nintzen Funcorren gonak altxatzen lehena»—, eta oso gaizki bukatu zuten azkenean. Kale gorrian geratu zen Atxa, ordurako lau seme-alaben aita zela.



Agate Deuna bezperan, Elorrion. Atxa, goiko ilaran, eskuinetik bigarrena



Arrasateko aste kulturala, 60ko hamarkadan. Atxa zutik, erdian. Makurtuta, eskuinean, Rikardo Arregi

## EDILI, ARGITALETXEA BAINO GEHIAGO

Langabezian zegoela eskaini zioten lana, beraz, Edili (Edicion de Libros) argitaletxe sortu berrian, Bilbon. Urtebete baino askoz gehiago ez zen bost bazkide abertzalek argitaletxea sortu zutela, Carlos Santamariaren bultzadarekin eta babesarekin: Castor Uriarte, Jon Arrospide, Jose Ezpeleta, Bernardo Mesanza eta Fernando Zubizarreta. Kepa Enbeita ibili zen hasiera-hasieran langile, politika kontuengatik atxilotu eta espetxeratu egin zuten arte.



Edili argitaletxean 1962tik 1964ra bitartean euskaraz argitaratutako ipuinetako batzuen azalak



Atxa 1960ko hamarkadaren hasieran heldu zenean, enkargu bakarra eman zioten oraindik argitaratzen hasi ez zen argitaletzeko jabeek Atxari: kultur arloko lanak bakarrik egiteko, politika kutsuko kontuak ez ukitzeko.

Ikastolak hasi berriak ziren, euskarazko irakurgaiak behar, eta haurrentzako ipuinak ateratzea izan zen Ediliren lehen ekimen argitaratzailea. Bilboko Bolueta auzoko argitaletxe batek, La Vasco Americana izenekoak, ipuin klasikoak argitaratu ohi zituen, gaztelaniaz, eta asko saldu gainera Hego Ameriketara. Ipuin haiek euskaratzeko tratua egin zuten. Eta lagun

zaharra izan zuen lankide Atxak, itzulpengintzan: Ion Oñatibia, New Yorkeko egonaldiaren ondoren Oiartzunera itzuli berria baitzen.

Zortzi ipuin argitaratu zituzten 1962tik 1964ra bitartean, denak gipuzkeraz: *Sagutxo jakintsua* (1962), *Sagutxo ausarta* (1962), *Erbia ta apo-armatua* (1962), *Mitxiñ'en biurrikeriak* (1964), *Aatetxo itsusia* (1964), *Txano Gorritxu* (1964), *Hamelin'go Txirularia* (1964), *Errauskiñe* (1964), *Ipotx triskaria* (1964), *Edurnezuri eta zazpi ipotxak* (1964) eta *Ikasbide on bat* (1964).



Aretxabaleta inguruko txokoak gogoko zituen.  
Urkulu urtegian, 2003an

## DURANGOKO AZOKAREN SORRERAN


Ipuin haiekin izan zuen zerikusirik Durangoko Azokak. Leopoldo Zugaza, azokaren bultzatzaile nagusia izango zena, ipuin pila batekin joan zitzaion behin etxera Atxari, euskaratzeko modukoak izan zitezkeela eta: Japoniakoak, Frantziakoak, Kanadakoak... Atxa eta Oñatibia hasi berriak ziren ordurako ipuinekin. «Zer geneukan ezagutzeko beharra geneukala ohartu ginen. Hortik atera zen azokaren ideia. Eta berehala plan zehatza egin genuen», azaldu zuen Atxak *Jakin*-en

1999ko uztail-abuztuan argitaratutako elkarrizketa biografikoan.

1965eko lehenengo azoka haren antolaketan zuzenean parte hartu zuen Atxak, kotxez hona eta hara joanez, azokarako argitalpenen bila: Donostiako, Bilboko eta Iruñeko liburu-dendetara, Auñamendi eta Itxaropena argitaletxeetara, Discos Columbiara, Euskaltzaindira... Durangoko alkatea ere elorrioarra zen, eta azoka Andra Mari Elizako arkupeetan egiteko baimena berak eskatu zuen.

Atxak Durangoko lehenengo azokan izan zuen parte hartzearen lekuko da azokako diskoen katalogoa Edilik berak argitaratu izana: *Euskal soñuaren argi-bidea-Catálogo de discos vascos* (1965). Bizkaiko Foru Libutegiko fondo gordeetan dago jaso, hurrengo urteko azokako liburuen eta diskoen katalogoa bezala, hau ere Edilik argitaratua: *Euskal liburu eta diskoen argibidea* (1966).

Beste nonbait ere egon daiteke jasota Atxaren erantzukizunaren beste lekukotza bat, Polizia etorri baitzitzaion Ediliren egoitzara, eta ez behin. Azoka hasi bezperan,



La Galera argitaletxe katalanarekin elkarlanean Edilik 1965ean argitaratutako ipuinetako baten azala

giroa berotzeko, jaialdia egin zuten elizpean. Besteak beste, bi pelikula dokumental eman zituzten, euskaraz, Gotzon Elortzak Paristik ekarriak, 16 milimetrokoak. Haietako batean Balendin Enbeita bertotan agertzen zen, kutsu politikoa ere bazuten bertsoak kantatzen. Pelikula haren edukia zela-eta joan zitzaion Polizia Edilira, hiru aldiz, kontu eske. Baina ez zuen beste ondoriorik izan.

Durangoko Azokaren arrakastaren ondoren, batetik eta bestetik deika hasi zi-

tzaizkien antolatzaileei, antzeko azokak egin nahi zituztela eta. Edilik antolatu zituen handik gutxira, besteak beste, Algorta, Eibar, Zarautz, Arrasate, Gasteiz eta Iruñeko azokak. Argitaletxe guztien liburuarekin biltegia zuen Atxak Ediliren Bilboko egoitzan, herriz herri eramateko.

## ARGITARATZAILE

Ipuinak argitaratzeari ez zion utzi Edilik, bitarte horretan. La Vasco Americanaren ipuin itzuliak berehala agortu ziren eta, hurrengo tratua, aurrekoaren antzekoa, Kataluniako argitaletxe batekin egin zuten: La Galera. Ez ziren ipuin klasikoak, idazle kataluniarrek idatzitakoak baizik. 1965etik 1969ra bitartekoak dira La Galerarekin elkarlanean argitaratutako ipuin itzuliak. *Alxor billa* (Maria Eulalia Valeri, 1965). *Segalarien askaria* (Maria Gasch, 1966), *Jostalluen uria* (M. Eulalia Valeri, 1966), *Lurralde berria* (Francesc Candel, 1967) eta *Guztiok ditugu senide txikiak* (Josep Espinas, 1969).

Edili ez zen ipuingintzara mugatu. Arrakasta handia izan zuen, adibidez, euska-

ra irrati bidez ikasteko Ion Oñatibiaren metodo berritzaileak: *Euskera irrati-bidez*. 1965ean argitaratu zen lehen mailari zegokiona, eta 1967an bigarren maila. Eta tartean, berrargitalpenak, berehala agortu baitziren lehenengoak. Erljio argitalpenak ere plazaratu zituzten, hala nola *Alkartasun Barria. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (1965), *Argi-bide txikia. Neskatok mutikoentzako eliz-liburua* (Anizeto Zugasti, 1965) eta *Jesukristoren Berri Ona* (Jaime Kerexeta *Arantzibia*, 1966). Eta garai bertsukoak dira, Atxa Edilin buru-




Nafarroako Ikastolen Elkarteko lagun minekin: Irene Lopez, Begoña Muñoz eta Rakel Sueskun

-belarri arituko zenekoak, beste hainbat argitalpen ere: *Olerkiak 1545* (Bernat Dechepare, 1968), *Aurtxoa. Izkindegi. Lenengo malla* (Itziar Orbea Muñoa, Joseba Erramon Forurua Arteta, 1965), *Ikasi* (1965), *Euskal abizenak* (1968) eta *Kartak (idazkiak): nola idatzi euskeraz?* (Nemesio Etxaniz, 1968) —Etxanizek 1950ean argitaratu zuen lehen aldiz, Itxaropena argitaletxean, eta Edilik berrargitaratu egin zuen—.

Gaztelaniaz ere argitaratu zituzten liburuak, euskal gaiei buruz: esate batera, *El vascuence ante otros idiomas* (Jose Antonio Mugica Aguirre, 1967) eta *Apellidos Vascos de Iberia: Su origen y evolución* (Jose A. Mugica, 1968).

*Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* ez zituen Edilik argitaratzen, baina Bizkaiko banaketaren, harpidetzen eta publizitatearen ardura Atxarena zen. Eta Edilik egoitzak utzi izan zizkien bi aldizkarietara, Bilboko Agirre kalean *Anaitasunari*, eta Donostiako Getaria kalean *Zeruko Argiari*. Getaria kaleko egoitza horretan, hain zuzen, grabazio estudioa ere antolatu zuten. Ion Oñatibiak bi disko grabatu



zituen behintzat, bata txistulariekin eta bestea Arantzazuko fraideekin.

Zineman ere urrats txiki batzuk eman zituen Edilik, Atxaren eskutik. Pelikulak bikoizten eskarmentua zuen katalan batekin jarri zen harremanetan, Serra Estruch, 18 milimetroko pelikula batzuk erosi zituzkion eta, Xabier Kintanarekin batera, euskarara bikoiztu zituen. *Ama Lur* pelikularako diru-laguntzak bilatzen eta diru kontuak eramaten ere aritu zen Edili.

## IKASTOLAK BULTZATZEN

Argitaratze eta banatze lanei eman zien Atxak lehentasuna Ediliko lehen urteetan, baina denboraren poderioz, ikastolak sortzeko mugimenduak indarra eta garrantzia hartzearekin batera, lehentasuna hartu zuen ikastolen aldeko lanak Atxaren jardunean. Algortan ikastola sortu zutenak izan zituen batik bat bidelagun: Goizon Garamendi, Iñaki Azkargorta, Juan Mari Flores eta Rikardo Manzano. Herriz herri ibili ziren, Bizkaian batez ere, baina baita Gipuzkoako mendebaldean eta Gasteizen ere, ikastola sortzeko asmoa zu-

tenei laguntzen, hitzaldien bidez beste herrietan nola egin zuten azaltzen, paperak nola egin behar ziren erakusten... Bilbon (Deustu eta Santutxu), Algortan, Sestaon, Galdakaon, Zornotzan, Ondarroan, Durangon, Gernikan, Lekeitioan, Markinan, Berrizen, Igorren, Ermuan, Eibarren, Elgoibarren, Arrasaten, Aretxabaletan eta Gasteizen behintzat ibili zen Atxa, ikastolak sortzeko lanetan.

Dirua ere behar zenez, egitasmo berri-tzailearekin ahalegindu ziren. Segundo Gorostizak, Mutua General de Seguros etxean lanean ari zen adiskideak, proposatu zion Atxari ikastolentzako dirua biltzeko aseguru etxe bat sortzea. Horrela sortu zuten Ziur S.L., bazkide bakoitzak 500 pezeta jarrita. Baina ez zuen behar besteko emaitzarik eman: «Lau katu ginen eta horretarako jendea behar zen, profesionaltasuna», azaldu zuen Atxak.

Ez federaziorik ez bestelako bilgunerik ez zegoen, eta koordinaziorako lehenengo ahaleginetan zuzenean hartu zuen parte Atxak. Bilera haietako batzuk Urretxun egiten ziren, Gipuzkoako ikastoletakoak biltzen ziren batik bat, eta Bizkaitik Atxa

joaten zen. Alderdi politikorik gabeko garaiak ziren baina ez, inondik ere, eztabaida politikorik gabeak. Eta ikastolen mugimendua gizarteko joeren arteko eztabaiden gune bihurtu zen, ikastolek hartu beharreko ereduari buruzko eztabaidak politikotik ere asko baitzuen.

Eztabaida politikoei aurre egin beharra, dena den, ez zitzaion ikastolen sorreran parte hartzetik bakarrik etorri. Atea zabal-zabalik izan ohi zuen Edilik Bilboko Diputazio kalean zuen etxeak, euskal kulturaren inguruan zebilenentzat. Bilerak askoren gunea zen. EAJko militante zen orduan ere Atxa, baina denei irekitzen zien atea —«ahal zen gutxiena jakiten nuen, ez nuen galdetzen hau nor zen eta bestea zertan zebilen»—, eta horrek EAJren mesfidantza ekarri zion denborarekin, Ediliri ordura arte emandako babesa zalantzan jartzeraino. Juan Ajuriagerrarekin berarekin bilera ere egin zuen Atxak, Ediliren jabeetako batekin batera, Jose Ezpeletarekin. Ediliko egoitzan egiten ziren bilera guztiei buruz Atxak hilero Ajuriagerrari txostena bidaltzea proposatu zuen Ezpeletak, aterabide gisa,



Ikastolen Batzar Nazionala, 1992an

baina Atxak uko egin zion, eta Ajuriagerrak ere ez zuen indar handirik egin txosten horiek jasotzeko. Horretan gelditu zen kontua.

Giro horretan bukatu zuen Atxak Ediliko aroa. Argialetxearen bultzatzaileek Euskerazaleak kultur elkarteak sortu zuten, eta Edili argialetxearen izena Oñatibiarrek hartu zuten, Ion Oñatibiarekin zeukan zor baten truke. Euskerazaleak elkartearen sorrera batzarretan hartu zuen parte Atxak, baina azkenean batzordetik kanpo gelditu zen, Atxaren ustez «presio politikoen ondorioz». Gerora euskara baituaren aurkakoen bilgune izan zen Euskerazaleak.



## «ATXA JAUNA», SAN FERMIN IKASTOLAN

Euskalgintzaren eta ikastolen mundutik alden du egin zen aldi batez Atxa, Edili utziz gero. Euskalduna izeneko nekazaritza eta abeltzaintza kooperatiban lortu zuen lana, saltzaile, eta Araban barrena ibili zen, pensua saltzen. Gasteiz izan zuten bizileku berak eta familiak garai hartan. Baina urtebeteko parentesi txikia besterik ez zen izan.

Horretan ari zela, Iruñeko lehenengo ikastolako suspertzaile nagusietakoak hots egin zion, Jorge Cortesek, San Fermin ikastola sortu berriaren zuzendaritza eskaintzeko. 1969-70 ikasturtean sortu zen San Fermin ikastola, Uxue ikastolaren zatiketaren ondorioz. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte zen, legez, Uxue ikastolaren jabea eta, tartean erlijioari eta politikari buruzko eztabaidak zirela, elkarte horrekiko lotura utzi eta ikastola berria sortzea erabaki zuten guraso gehienek: 308 ikasletik, 270ek jo zuten ikastola berrira. Baiezkoa eman zion Atxak eskaintzari, eta 1970. urtean heldu zen. Bizkaian bezala Nafarroan herriz herri suspertzaile lana egite-

ko eskatu zion Cortesek. Garai bizi-biziak ziren ikastolen mugimenduarentzat Nafarroan, orduan ari baitziren sortzen ikastola berriak, eta suspertzaile lanetan ere ibili zen lehen urteetan, besteak beste Olaztin, Lizarran, Tafallan, Etxarri-Aranatzen, Arbizun, Lekunberrin, Elizondon eta Altsasun, nahiz eta gerora San Fermineko zuzendaritza lanak zeregin hauetarako tarterik ez zion utzi.

Ikastola bateko zuzendari izatea ez zen ikastetxe arrunt bateko zuzendari izatea. Hamaika arazori eta eztabaidari aurre egin behar izan zion, ikastolen mugimenduaren sorrera hartan aritu ziren gainerakoek bezala, Atxak. Aurreneko ikasturtean bertan lortu zuten ikastolaren legeztatena, 1970eko abenduaren 3an. Ikastolan inolako politikarik ez zela egingo agindu behar izan zioten Gerona de la Figuera gobernadoreari, eta horren berme ikastolako batzordeko buru eta buruorde Miguel Javier Urmeneta foru diputatua eta Estanislao Arantzadi enpresaria jarrarazi zituen, ordura arteko lehendakaria (Ramon Urmeneta) eta lehendakariordea (Javier Cunchillos) kargutik kenduta.



Emaztearekin eta Jorge Cortes Izalekin, San Fermin Ikastolaren sortzaileetakoak, zuzendaritza hartzea eskaini ziona

Legea ez zen arazo bakarra. San Fermin ikastola, Euskal Herriko ikastola gehienak bezala, eztabaida latzen guneez izan zen, pedagogiaren ikuspegitik esperientzia berrien laborategi ere bihurtu baitziren ikastolak, baita antolamenduaren ikuspegitik eredu berrien probaleku ere, frankismoaren bukaera hartan gizartean pizten ari ziren borroken ispilu ere bazirenez ikastolak. Eta Atxa Jauna, erdian. Atxa Jauna esaten baitzioten San Fermin ikastolan denek, berari atsegina ez zitzaion arren, euskaldunek nahiz erdaldunek. *Señor Atxa Jauna* ere bai inoiz, despistaturen batek. Eztabaida eta tirabira horiek zirela eta, dimisioa aurkeztu izan zuen behin baino gehiagotan Atxak, baina ez zioten onartu izan. 1984ko ekainaren 26an utzi zuen ikastola, erretiroa hartzeko.



Ramon Urmenetarekin. San Fermin ikastolaren sorreraren 25. urteurrenean, 1995ean



Iruñeko San Fermin ikastolaren eta Jaso ikastolaren historiari buruzko liburuen azalak

Hamalau urte egin zituen, beraz, Atxa Jaunak San Fermin ikastolako zuzendari. 270 ikasleko ikastetxea zela hartu zuen ardura Atxak, eta mila ikasle inguru zituela utzi zuen, egoitza propioarekin eta euskarazko batxilergoa ere martxan, 1979tik. Gainera, Arturo Kanpion akademiaren (1974), Blanca de Navarra ikastolaren (1976) eta Francisco de Jaso ikastolaren (1980) sorburuan izan zen San Fermin ikastola, Atxa zuzendari izan zen garaian.



## Erretiroan ere lanean

Eusko Ikaskuntzako Manuel Lekuona saria jaso zuenean, 2004an

**H**irurogeita lau urterekin utzi zuen Atxak San Fermin ikastola, jubilatzekeo adinarekin. Beste lanik egin zuen, baina, geroztik. Nafarroako ikastolen historiari buruzko dokumentazioa biltzen aritu zen urtetan, egunero-egunero Elkartearen egoitzara joanez. Ikastolen dokumentazioarekin artxibo aberatsa utzi du bildua, eta egindako lanaren erakusgarri txikia besterik ez dira argitaratuta utzi dituen liburuak, hala nola San Femin, Jaso, Altsasu, Bera, Elizondo, Etxarri-Aranatz, Lesaka, Lizarra eta Tallako ikastolen historiari buruzkoak. Ikastolen historiari buruzko argitalpenez gain, *Jesus Peña. Idazle atxabaltarra*

(1914-1937) liburuaren idazketan ere parte hartu zuen, Jose Maria San Sebastian *Latxaga*, Lorentxo Peña, Aitor Antxia eta Kepa Antxiarekin batera.

Aldi batez politikagintzan ere aritu zen, erretiroa hartu ondorenean: Eusko Alkartasunean sartu zen, Nafarroako EAJko ia kide guztiak bezala, 1986ko zatiketan, eta 1990eko hamarkadaren hasieran EAren bulegoan idazkari lanetan aritu zen, lau urtez.

Euskaltzain urgazle izendatu zuten Edilin zebilen garaian, 1967ko abuztuaren 25ean, eta euskaltzain ohorezko, aldiz, jubilatuz gero, 1998ko apirilaren 24an.



Jesus eta Loretxo Peña atxabaltarra, haurtzaroko lagun mina

2004ko maiatzaren 8an, berriz, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jaso zuen, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentearen eskutik. «Euskal kulturaren pertsona ospetsuenganako ezagutza gisa» ematen du saria Eusko Ikaskuntzak, 1984tik. Sari hau jaso dute, besteak beste, Carlos Santamariak, Bernardo Estornesek, Jorge Oteizak, Piarres Xarritonek edota Jean Haritzelharrek. Orduan esan zuen Atxak, saria jaso ondorengo hitzaldian, Sanzentzat propio gazte-



Bilobekin kontu kontari, Etxaurin, 2005ean



Aitor bilobarekin, Elorrion

laniaz egindako zatian, «Nafarroako errepide estuak euskararen autobide» bihurtu beharra zegoela. Horretan jardun baitzuen Jesus Atxak bizitza osoa: euskararen errepide estuak autobide bihurtzen.



Ainhoa bilobarekin, San Ferminetan

2007ko urriaren 23an hil zen, 87 urterekin, gaixoaldi luze baten ondoren. Emaztea, lau seme-alaba eta zazpi biloba utzi zituen.

Atxaren heriotzaren berri jaso zuen biharamunean Euskal Herriko prentsak, eta bere ibilbideari buruzko hainbat iritzi artikululu argitaratu ere bai, hurrengo egunetan. Haien artean, J. Garcia Eugik *Diario de Noticias*-en idatzitakoak Atxaren nor-tasunaren ezaugarriak bereziki ondo jaso

zituen, seme-alabek esatera. «Hizlari nekaezina», «dialektikaren laguna», «solaskide atsegin, ironiko, bizi, sakon eta, batez ere, umore zorrotzekoa» izan zen Atxa: «Bere ibilbide eredugarria hemerrotekatan jasota geldituko da, baina ez bere erdi irribarrea eta bere begi berde biziak».

## ITURRIAK

*Argia* aldizkaria, 1946-48 urteetan Caracasen eta New Yorken argitaratutakoa.

Euskadi Irratiko *Doana jaso* saioan 1998ko ekainaren 3an eta 11n Pello Zabaletak egindako elkarrizketa.

*Jakin* aldizkariaren 113. zenbakian 1999ko uztail-abuztuan Imanol Murua Uriak egindako elkarrizketa.

*Jesus Atxa Agirre. Manuel Lekuona Saria* liburuxka (Eusko Ikaskuntza, 2004). Egileak: Ane Apezetxea eta Enrike Diez de Ulzurrun.

*San Fermin Ikastola. 25. urteurrena (1970-1995)* liburua. Egileak: Jesus Atxa eta Aingeru Epalza.

Jesus Atxaren idazlan argitaragabeak: *Ikusiko dugu* eta *Oroitzapenak*.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Atxa Igartza familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2760-7 (Lan osoarena)  
978-84-457-2764-5

L.G.: BI - 2924-08

# BIDOGUILLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco